

## SASKIBALOIA

# Chicago, threepeat

## Phoenix 4-2 gainditu eta Bullsek hirugarren eratzuna lortu du jarraian

98

**PHOENIX** K. Johnson (19), Majerle (21), Dumas (8), Barkley (21), West (4); F. Johnson (-), Ainge (9), Chambers (12), Miller (4).

99

**CHICAGO** Armstrong (18), Jordan (33), Pippen (23), Grant (1), Cartwright (2); Paxson (8), Tucker (9), King (-), Williams (5).

ENEKOITZ ESNAOLA / DONOSTIA

**Threepeat.** Hiru aldiz errepi-katzea esan nahi du horrek. 1988., urtean asmatu zuen hitz xelebre hau Pat Riley Los Angeles Lakers-eko entrenatzaileak, NBAko titulua jarraian bigarren aldiz irabaztean. 1989an berriz eskuratuko zutela esan zuen orduan Rileyk. Dena den, ez zuen asmatu, Detroit Pistons-ek 89ko finalean 4-0 irabazi baitzun Lakersi.

Aurten hori erdietsi duena Chicago Bulls izan da. Horrelakorik lortzen duen hirugarren taldea da, aurretik Minneapolis Lakers (52, 53 eta 54an) eta Boston Celtics-ek (59tik 66ra) lortu

zutelako. Orain Chicagok *three-peat* hitza daramaten hainbat kamiseta aterako ditu eta Rileyk erabilera eskubideagatik 2.5 milioi dolar irabaziko omen ditu.

Chicagok laugarren garaipena atzo lortu zuen Phoenixen—denboraldi honetan lau aldiz jokatu du Charles Barkleyren taldearen kantxan eta guztietan garaile ate-ra da Chicago—. Markagailua 98-99koa izan zen Bullsen alde. 98-94 zihoazela, Jordanek sarrera egin eta bi puntu. Gero defentsan baloia errekuperatu eta estudiaturako jokaldi batean, Paxsonek hirukoa bota... eta sost. Lau segundu falta ziren eta 98-99. Gero, Kevin Johnsonek jaurtiki azkeneko segunduan baina Horace Grant-ek txapela ipini zion, Chicagok finala 4-2 irabaziz.

Partidua, oro har, Chicagok dominatu zuen. Aurreneko 12 minutuen amaieran 28-37 Jordanen taldearen alde. Gero, Phoenixek pixka bat errekuperatu eta atsedenera 51-56. Phoenix ez zen erosoa jokatzen ari. Majerleren jaurtiketei esker ja-

rraitzen zuen bizirik.

Partiduko azken minutuetan Phoenixek lortu zuen aurrea, Pippen gehiegi huts egiten ari bai-tzen. Baina ondoren Jordanen saskiratzeak eta Paxsonen hiru-

koa heldu ziren eta NBAko txapeldun, Chicago. Jordanek jaso du NBAko finaleko MVP (jokalaririk onena) saria. Hirugarren aldiz jarraian eskuratu du sari hau 1.98ko jokalariak.

### PALMARESA

Urtea	Irabazlea	Urtea	Irabazlea
1948	Baltimore Bullets	1947	Minneapolis Lakers
1950	Minneapolis Lakers	1949	Minneapolis Lakers
1952	Minneapolis Lakers	1951	Rochester Royals
1954	Minneapolis Lakers	1953	Minneapolis Lakers
1956	Philadelphia Warriors	1955	Syracuse Nationals
1958	San Louis Hawks	1957	Boston Celtics
1960	Boston Celtics	1959	Boston Celtics
1962	Boston Celtics	1961	Boston Celtics
1964	Boston Celtics	1963	Boston Celtics
1966	Boston Celtics	1965	Boston Celtics
1968	Boston Celtics	1967	Philadelphia Sixers
1970	New York Knicks	1969	Boston Celtics
1972	Los Angeles Lakers	1971	Milwaukee Bucks
1974	Boston Celtics	1973	New York Knicks
1976	Boston Celtics	1975	G. State Warriors
1978	Washington Bullets	1977	Portland T. Blazers
1980	Los Angeles Lakers	1979	Seattle Supersonics
1982	Los Angeles Lakers	1981	Boston Celtics
1984	Boston Celtics	1983	Philadelphia Sixers
1986	Boston Celtics	1985	Los Angeles Lakers
1988	Los Angeles Lakers	1987	Los Angeles Lakers
1990	Detroit Pistons	1989	Detroit Pistons
1992	Chicago Bulls	1991	Chicago Bulls
		1993	Chicago Bulls

**Urki nagusi**  
Euskadiko banku  
mugikorreko  
txapelketan

RAMON BASALDUA / BILBO

Donostiako Ur Kirolak taldeko zortziketa nagusitu zen asteburu honetan Legion jokatu zen Euskadiko aulki mugikorreko txapelketan. Urki-ko un-tziak sekulako lehia izan zuen Donibaneko Arraunlariak eta Santurtziko Itsasoko Ama taldeko un-tziekin.

Azkenean donostiarak izan ziren garaile, Doni-baneko bigarrena segundu batera, Santurtzi hirugarena hiru segundura, Arraun Lagunak laugarrena lau segundura, Orio bostgarren zortzi segundura eta Sestaoko Kaiku taldeko un-tzia seigarren hamaika segundura.

Laukoteetan, Oriok irabazi zuen, Arraun Lagunak eta Santiagotarrak taldeean aurretik. Bikoteetan osteria Santurtziko Itsasoko Ama izan zen onena.

## 12 zenbakidunari.



**G**aur zuek zarete protagonistak. 80 urtetako fideltasunaren ondoren, Atotxako zelai zaharrak betiko agur esan nahi dizue. Lagunarteko festa-giroan. Benetako omenaldia eskainiz jokalaririk mirestuenari: errealaren afizioari.

### ATOTXARI AZKEN AGURRA

- Erreal - Athletic beteranoen partidua.
- Erreal - Euskadiko Selekzioid paridua.
- Donostiako Orfeoiaren emanaldia.
- Errealaren afizioari omenaldia.
- ...eta askoz ere ustegabeko gehiago.

BAZKIDEEK SARRERA  
DOHANIK

